

Prensa oharra

Nota de prensa

Baserritarrek kristalezko egiturak izango dituzte Bretxaren kanpoko plazan

Tokiko Gobernu Batzordeak behin betiko onarpena eman dio Bretxako HBPBren Xehetasun Azterketari

Baserritarrek kristalezko egitura berria izango dute euren jarduerarekin jarraitzeko Bretxako plazaren kanpoaldean egingo den berrantolaketan. Horrela dio gaur Tokiko Gobernu Batzordeak behin betiko onartu duten Bretxako HBPBren Xehetasun Azterketak.

Donostiako alkate Eneko Goiak honakoa esan du: “Baserritarrak protagonista izango dira Bretxako plazaren berrantolaketa berrian. Gainera, berrantolatze berri horren ondorioz, egun plazaren erdian dagoen eraikina – Tupper bezala ezagutzen dena – desagertuko da eta donostiar guztiok disfrutatzen plaza ireki berri bat sortuko da”.

Pergola berria merkatu ohiaren eraikinaren hegoaldeko aurrealden kokatuko da eta segidako ezaugarriak izango ditu: gehienez 5 metrotako zabalera; gutxienez 3,50 metrotako altuera librea; Bretxako merkatuaren aurrealdearen luzera berdina; eta aurrealdetik 20 m aldenduta, markesina ixteko elementuek aurrealdea ez ukitzeko.

Gainera, Xehetasun Azterketak satora sartzeko lerrokadurak eta bolumentria aldatzen ditu, eta ondorioz, sarrerak gehienez 8 metrotako zabalera izango du eta Bretxa eta Arraindegia eraikinen aurrealdeekin lerrokatuta egongo da.

Turismoaren Arretarako Bulegoa

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du Altuna y Uria S.A. enpresari esleitzea Udaletxeko beheko solairua eraberritzeko eta bertan Turismoaren Arretarako Bulegoa egokitzeko proiektuari dagozkion obrak xede duen kontratua.

Obrak datozen asteetan hasiko dira, zortzi hilabeteko epea dute, eta 1.883.353 euroko aurrekontua.

Enplegua sortzea

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du 337.244 euro bideratzea langabetuek beteko dituzten 26 lanpostu sortzeko. Lanpostu horiek hainbat udal jarduera garatzeko erabiliko dira.

Besteak beste, honako lan hauek nabarmendu daitezke: hileta-zerbitzuetako mantentze-lanak; ingurumen-proiektuetan interesa anizkoitza dutenak, edo intereseko lanak Donostia Kirolan, Mugikortasunean, edo Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamenduko zerbitzuan.

Halaber, onartu du Donostia Sustapena SA udal sozietatea erakunde laguntzailea izango dela tokiko enpresei langabetuak kontratatzen emango zaizkien dirulaguntzak kudeatzeko orduan. Betiere, kontratazioak udal jardueretarako direnean, eta

Prensa oharra

Nota de prensa



laneratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen gizarteratzeaz eta laneratzeaz arduratzen diren irabazi asmorik gabeko enpresa esleipendunek egiten dituztenean.

2023 urtean programa honetara bideratuko den aurrekontua, 919.680 eurokoa da.

Biotech Foods Ezkuzaitzetara

Tokiko Gobernu Batzordeak onartu du Biotech Foods enpresari Ezkuzaitzetako poligonoan bi urteko epean eraikin bat eraikitzeke lizentzia ematea. Industria-nabeak 11.100 metro koadroko partzela hartuko du, eta 6.701.210 euroko aurrekontua izango du.

Biotech Foods startup berritzailea da, eta gaur egun BIC Gipuzkoaren instalazioetan du egoitza. Haragi landuaren ekoizpena lantzen du, proteina ugariak elikagaiak fabrikatuz ehunen ingeniartzaren bidez. Ingeniaritza hau medikuntzan organoak birsortzeko erabiltzen den teknologia bera da. Animaliei kalterik eragin gabe eta hondakinik sortu gabe. Ezkuzaitzetako lantegi berrira lekualdatzeak ekoizpen handiagoa izatea ahalbidetuko dio enpresari. Hala, gorabidean den merkatu baten eskaerari erantzun ahal izango dio.

Donostian, 2022ko urriaren 8an